


## Okela euskaraz eskatzeko kanpaina jarri dute martxan Buruntzaldeako Udalek

Herriko 12 harategik euskara sutatzeko kanpaina hartuko dute parte. Abenduaren 17a bitartean luzatuko da bailarako Euskara Zerbitzuen kanpaina hau. /3



## Oposiziorik gabeko udalbatzarra

Ezker Batuak aurkeztutako bi mozioak bertan behera geratu ziren atzo

Lasarte-Oriako Udalbatzarrak ohiko bilkura egin zuen atzo jendaurreko ekitaldian. Oposizioko sei zinegotzien eserleku hutsa egon ziren: ANVko 3, EAJko 2, EAKoa eta LOHPkoa. PSEk zinegotzi bat zuen faltan. Gai-zerrendan bi gai hipzide, galderik eta eskaerarik ez ziren egon.

Ricardo Ortegak (EB-Berdeak) proposatu zituen bi gaiak. Lehen, Estatuko Fiskaltza Nagusiak frankismoaren aurkako auziari jarritako oztopoei buruzko mozioa. Alderdi sozialistak testu alternatibo bat aurkeztu eta onartu zen, EB eta PPren botoen aurka eta EAJren abstentzioarekin. Funtsean gauza berak eskatzen diren arren -diktadurak II. Errepublikaren aurkako

estatu-kolpean, Gerra Zibilean eta diktaduran garatutako krimen larriak agerian jarri ditzaten eta biktimak nortzuk diren eta non dauden ikertu dezaten-, Iñaki Mugikak esan zuen, Lasarte-Oriako Udalak ezin duela Kontseilu Fiskalaren jarduketa gaitzetsi. "Ez da momentua fiskaltzaren lana epaitzeko, memoria historikorekin akordioengain inguruan denok batera lana egiteko, baizik".

Ortegak "Sofia erreginak herritarren eskubide zibilen gainean egin dituen adierazpenak deslegitimatzea" eskatu zuen. Mozioa bertan behera geratu zen, EAJko boto bakarra alde izan baitzuen eta gainontzekoak PSE (7) eta PP(1) kontra. •



Ezker Batua-Berdeako zinegotzia aurkeztutako mozioak irakurtzen.

## Rafael Izagirre oriatarrak 100 urte bete ditu

Nahiz eta Donostiako Egiako auzoan bizi, Rafael Izagirre 1908an jaio zen Oriako Goikoe-txea baserrian. Jose Manuel Izagirre urnietarraren eta Josefa Ignacia Elizegi oriatarraren semea. Gerra Zibila hasi zenean armadan izena eman zuen eta 1939an guda bukatu ostean, Zegamako Manoli Arizkorretarekin ezkondu ostean Egiara joan zen bizitzera. Bertan izan zuren bere alaba bakarra, Arantxa. 2005ean emaztea galdu zuen eta nahiz eta kalea gutxi atera, gizon aktiboa da. Bere bizitzaluzeraren sekretuari buruz galdeztean zera dio, "bizitza sanoa izan dut, baina agian sekretua oso ongi zaindu nautela da." •



Arg.:Txema Valles

### AGENDA 21 ■ 4

**Herritarrek proposamenak egiteko foroak**

### GIZARTEA ■ 5

**Zentro Terapeutikoa Kaxkarro eraikinean**

### KIROLA ■ 6

**David Martin: "Lasterketa nola joan zen ikusita, ontzat ematen dut 7. postua"**



KIOSKO DIGITALA

Errebelatu DIGITALA ORDU ERDIAN  
KARRETEEN errebelatua ORDU BETEAN  
EZKONTZETAKO erreportajeak  
ESTUDIOKO erreportajeak  
makina DIGITALAK  
30X90 neurrirainoko ANPLAZIO DIGITALAK  
GEURE MARKOAK JARTZEN DITUGU

**Gabonetarako, opari aproposa daukagu edonorentzat!**



Zorion-agurrak



**Leire**

Zorionak printzesa. Lau muxe potolo potolo Iraia, amatxo eta aiatxoren partetik.



**Saioa**

Zorionak printzesa! Johana, aita-ama eta familiaren partetik, zure I. urteurrenean.



**Ane**

Zorionak eta 19 muxe handi, familia eta Sararen partetik



**Alazne**

Zorionak muñe! Zazpi muxe handi, ama, aita eta Andoniren partetik.



**Vanessa**

Zorionak eta bederzti muxe, aita, ama eta Sandra.



**Urko**

Zorionak Urko, asko maite zaitugu. Odei, aita eta amaren partetik.



**Gorka**

23 dagoeneko! Zorionak kuadrillaren partetik gazte! On ein tortilak!



**Ainhoa**

Zorionak guapa! 22 muxe handi zure bitxitoen partetik!



**Arantxi**

Zorionak amatxo!! Ze aurpegi alai duzun! Muxe handi bat hiruroi!

Guardiak

**Ostrala, 14**

Gil, Kale Nagusia 24  
Tel.: 943 361529

**Larunbata, 15**

Rodriguez, K. Nagusia 42 atzea  
Tel.: 943 361774

**Igandea, 16**

Rodriguez, K. Nagusia 42 atzea  
Tel.: 943 361774

**Astelehena, 17**

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6  
Tel.: 943 363549

**Asteartea, 18**

Urbistondo, San Frantzisko 1  
Tel.: 943 366567

**Asteazkena, 19**

Orue, Jaizkibel plaza 2  
Tel.: 943 362652

**Osteguna, 20**

De Miguel, Kale Nagusia 32  
Tel.: 943 371151

Telefonoak

**Osasuna / Larrialdiak**

Osasun Zentroa ... 943 007960  
DYA ... 943 370000  
Gurutze Gorria ... 943 363953  
Udaltzainak ... 943 362442  
Ertzaintza ... 943 288888  
SOS Deiak ... 112

**Udala**

Erregistroa ... 943 376055  
Euskarako Zerbitzua 943 376184  
Kiroldegia ... 943376182  
Kulturetxea ... 943376181  
Bakezko epaitegia ... 943371629  
Zerbitzu Sozialak ... 943376179  
Zentro Zibikoa ... 943363958  
KIUB ... 943361605  
Udal euskalgia ... 943361621  
Obrak eta zerbitzuak ... 943 376180

Azoka txikia

**Eskaintza inmobiliarioak**

- Pisu bat alokatzen da Lasarte-Oriako erdigunean. Abala eskatzen da. Tel.: 686 674 552.
- Urbarten garaje plaza bat alokatzen dut. Plaza handia da, furgoneta bat sartzeko modukoa. Tel.: 943 376 115.
- Salgai trasteleku bat Sasoetan, 20 metro karratu ditu. 700.000 pta.ko prezioa du. Tel.: 629 417815.

**Salerosketak**

- Garaje itxia erosiko nuke edozein lekutan, gehienez 4.000.000 pta ordainduko nituzke. Tel.: 629 417815.

- 18 eta 22 metro karratuetako 2 trasteleku saltzen ditut Lasarte-Orian ( Sasoeta auzoan). Bakoi-tzaren prezioa 1.000.000 pta. Tel.: 629 417815.

• PSPa salgai. Urte bete du eta oso gutxi erabilia, 125 euro. Tel.: 653 712373

• Lizarrako kanpinean Movil Home bat salgai. 1 l x 4 metrokoa, portxea eta partzela. la berria eta hobekuntzak. Kanpina urte guztian irekia dago. 87.300 euro. Tel.: 943371038/658089380

• Urbarten garageko marra bat alokatzen det. Tel.: 943.363524

• Garaje itxia erosiko nuke Lasarte-Orian. Gehienez 4.000.000 milioi ordainduko lirateke. Tel.: 629 417 815

ke, goizeko 9:00etatik 13:00etara. Lasarte-Orian edo inguruetan. Tel.: 687 348 233.

• Neska arduratsu bat eskaintzen da lanerako. Helduak zaintzeko edo/eta garbiketa lanetarako; interna moduan edo bakarrik egunean zehar. Tel.: 638 308 921.

• Neska arduratsu bat eskaintzen da lanerako. Helduak zaintzeko edo/eta garbiketa lanetarako; interna moduan edo bakarrik egunean zehar. Tel.: 620 036 888.

**Lan-eskaintzak**

• Neska bat eskaintzen da arratsaldeetan umeak zaindu, plantza egin edo etxeko lanak egiteko. Tel.: 647765854.

**Lan-eskariak**

• Pertsona helduak zainuko nituz

**Oharretarako:**

943 366858 • txintxarri@ttakun.com • Geltoki kalea 4  
www.txintxarri.info  
www.txintxarri.iragarkilaburrak.com

**Jaiotzak**

Edik Calahorra San Román azaroaren 2an  
Amaiur Barrera Genau, azaroaren 12an

**Heriotzak**

Agustin Novoa Blanco urriaren 30an 66 urte zituela

**Gazte Informazioarako Bulegoa**  
Manuel Lekuona kulturetxea • Tel.: 943 376181

**Kiroldegiko mantentze lanetarako 2 lanpostu Zarautzen**  
Zarautzko Udalak deituta, lehiaketa-oposizio bidez, kiroldegiko mantentze lanetarako bi lanpostu betetzera Zarautzko Kirol Patronaturako. Horretarako epea BOE aldizkarian argitaratzeke dago. Informazio gehiago Zarautzko Udalean, Zigordia, 13; tel.: 943 005100; web orria: http://www.zarautz.org.

**Gipuzkoako Foru Aldundian Errenta kanpainetan laguntzeko teknikarien lan-poltsa**  
Gipuzkoako Foru Aldundian aldi baterako zerbitzuak eskaintzeko, errenta-kanpainetan laguntzeko Erdi-Mailako Teknikarien lan-poltsa osatzeko aukeraketa-prozesua. Bete beharreko ezaugarriak, Inge-

niari Teknikoak, Unibertsitateko Diplomatuak edo baliokidea. Horretarako azken eguna azaroaren 25a da. Informazio gehiago GFAn, Gipuzkoa plaza, z/g; tel.: 943 112 111; web orrialdea: https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2008/11/05/e0812149.htm.

**Obra eta zerbitzuetako elektrikarien lan-poltsa Bergarako Udalerako**  
Bergarako Udalak deituta lehiaketa-oposizio bidezko obra eta zerbitzuetako elektrikarien lan-poltsa osatzea. Bete beharreko ezaugarriak honakoak dira: 16 urte beteta izatea; Batxilergo titulua, LHII edo pareko den titulua baten jabe izatea; 2. hizkuntza-eskakizuna, derri-gorrezkoa. Izena-emateko azken eguna azaroaren 14a. Informazio gehiago Bergarako Udalean, Martin Agirre Deunaren Plaza, 1. Tel.: 943 779100; web orria: http://www.bergara.net.

**Bi Gizarate langile Zumaiako Udalerako**  
Zumaiako Udalean Gizarte Zerbitzuetako bi lanpostu betetzeko oposizio-lehiaketa. Bete beharreko ezaugarriak: Gizarte Laneko Diplomatu-titulua edo Gizarte Laguntzaile-titulua izatea; Euskarako 3. hizkuntza-eskakizuna izatea. Izena emateko azken eguna azaroaren 19a. Informazioa Zumaiako Udalean, Foruen Enparantza, 1. Tel.: 943 865025; web orria: https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2008/10/17/e0811439.htm.

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala  
Euskarako Batzordea



EUSKO JAURLARITZA  
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkarteak, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria. 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: S5513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.300 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarriek ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

# Eska ezazu haragia euskaraz!

- Lasarte-Oriako 12 harategik euskara sustatzeko kanpaina parte hartuko dute
- Abenduaren 17a bitartean luzatuko da bailarako Euskara Zerbitzuen kanpaina hau

TXINTXARRI

Buruntzaldeako sei Udalek elkarlanean jarraitzen dute herritarrek euskaraz kontsumi dezaten sustatzeko. Buruntzaldeako Udalek martxan jarri behar duten harategien kanpaina berriaren aurkezpena egin zuten astelehenen goizean, Hernaniko udaletxean. Idurre Lukas Hernaniko Euskara Saileko lehendakariak, Ricardo Ortega Lasarte-Oriako Euskara Saileko lehendakariak eta Marifer Gorostiza Lasarte-Oriako Euskara Zerbitzuko teknikariak kanpainaren nondik norakoa eman zuten aditzera.



Exzerretik hasita, Marifer Gorostiza, Idurre Lukas eta Ricardo Ortega.

Arg.:Arkaitz Illarramendi.

Harategien kanpaina *Eska ezazu haragia euskaraz*, lelopean aurkeztu zuten astelehenen, Hernanin eta abenduaren 17a bitartean luzatuko da. Helburu nagusia, herritarrek harategietan euskaraz eskatu dezaten sentiberatzea da, hau da, herritarrek harategietan ere, euskaraz eskatu eta erosi dezaten bultzatzea.

Buruntzaldeako sei udalerrietan hirurogei harategi egin dute bat kanpaina honekin eta Lasarte-Orian hama-

bik hartuko dute parte ekimen honetan eta ondorengoak dira: Ahorramás Goxo-Goxo (Kale Nagusia 36), Aralar (Aralar plaza 1), Arsuaga autozerbitzua (Oztaran Plaza 1), Goxo-Goxo (Geltoki kalea 19), Etzezarreta (Hipodromo etorbidea 2), Juan Mari (Jaizkibel Plaza

11), Justo (Zumaburu kalea 7), Larraña (Kale nagusia 39), Okela (Kale Nagusia 41), Okela (Hipodromo etorbidea 8), San Miguel autozerbitzua (Ola kalea 6), Urdaitegia (Goikale 5).

Marifer Gorostiza teknikariak azaldu zuenez, bigarren urtez aurkezten duten harate-

gien kanpainak harrera ona izan du harategien artean. Honen harira, kanpainaren aurkezpenaren helarazi zuten, harategi hauek "konpromezu txiki eta praktikoa bat hartu eta bideratu behar dute: erakusleihoko produktuen gainean haien izena euskaraz duten karteltxoak jartzea".

Orokorrean erabiltzen dituzten produktuen izenak jasoko dituzte karteltxoak izango dira, bai haragi atal ezberdina, bai txarkuteriak. Euskaraz gaztelaniazko forma euskaldundua erabiltzen denetan, azpizuna/solomiloa adibidez, bi formak jarriko dira.

## Zozketa

Aipatutako harategietan ere, jendaurrean kartel batzuk ipiniko dituzte gehien kontsumitzen diren animalien despiezearekin, bezeroek jakin dezaten pieza bakoitzaren gaztelaniazko kidea zein den. Honi lotuta, bezeroek harategietan esku-orri bat eskuratu ahal izango dute zozketa batean parte hartzeko. Parte hartzen duten guztien artean 50 euroko bi sari zozketatuko dira establezimendu bakoitzeko eta sariaren diru-kopurua, establezimenduan bertan kontsumitu beharko dute irabazleek.

Kanpainaren eta zozketaren informazio gehiago nahi izanez gero, [www.buruntzaldea.org](http://www.buruntzaldea.org) orrialdean aurkitu ahal izango duzue hurrengo astetik aurrera. •

## Jaiotzen lehiaketa abian da

Abenduaren 19 eta 20an aurkeztu behar dira jaiotzak, Danok Kideko egoitzan

Danok Kide Guraso Elkarteak XVI. Jaiotzen Lehiaketako oinarriak argitara eman ditu. Lehiaketan parte hartu behar dutenek jaiotzak abenduaren 19an eta 20an, Guraso Elkarteak Blas de Lezo kalean duen egoitzan utzi behar dituzte, arratsaldeko 18:00etatik 20:00ak bitartean. Bertan, jaiotzak ikusgai egongo dira eta.

### Lehiaketako oinarriak

Jaiotzen lehiaketan banaka nahiz taldeka parte har daitezke. Lanarekin batera gutunazal itxi bat entregatu behar da. Honen azalean, parte-hartzaile edo taldearen adina idatzi behar da. Neurriari dagokionez, jaiotzek neurritz gehienez 80x60 cm. izan daitezke eta ez dute onartuko hondo sendokoa ez duen



Irudian iazko lehiaketako parte hartzaileak eta irabazleak.

jaiotzik, ezta lehiaketa honek aurreko urteetan aurkeztutakorik ere.

Talde kalifikatzaileak utz ditzake sariak banatu gabe, baldin lanak kalitatezkoak ez

dirala irizten badiu. Hala parte-hartzaile banakoek, nola taldekakoek, lan bakarra aurkeztu dezakete. Jaiotza guztiak abenduaren 19an eta 20an Danok Kideko egoitzan jasoko dituzte.

### Mailak eta sariak

Urtero legez, lau maila bereiztuko dituzte sari-banaketa egiteko. A mailako, 6 urte eta 9 urte bitarteko irabazleak 60 euro eta trofeoa eskuratuko ditu, 2. sailkatuak, berriz, 40 euro; 10 urtetik 13 urte bitarteko B mailan, 1go sarituak 70 euro eta trofeoko saria izango du, bigarrenak 50 euro; C mailan, 14 urtetik 17rako tartean 90 euro eta trofeoa eskuratuko ditu lehen sarituak eta 2. sailkatuak 60 euroko ordain saria; eta azkenik, D mailan, 18 urtetik gorako irabazleak 120 euro eta trofeoa jasoko ditu sari gisa eta 2. sarituak 90 euro. Elkarteak jakin arazi duenez, lehiaketara aurkeztu eta bertan onartutako lan guztiek 15 eurotako saria jasoko dute. •

DONOSTIAKO BIGARREN INGURUBIDEKO LANAK

### Berriz ere leherketak

Donostiako Bigarren Ingurubidearen lanak direla eta, leherketak egingo dituzte bihar, azaroaren 15ean, N-I eta Teresategi baserriaren artean gutxi gorabehera 14:00etatik 16:00etara. Herritarrek jakinaren gainean jarri nahi dituzte Udalak ustekabearen ez harrapatze arren. •

### ETXERAT Manifestaldirako deialdia egin du

Azaroaren 9an Etxeratek batzar nazionala ospatu zuen eta bertan urtarrilean egingo duten manifestaldirako deialdia egin zuten. "Heriotza zigorrik ez. Biziartero zigorrik ez" lelopean nazio manifestaldia egin nahi dute urtarriaren 3an, larunbatean, arratsaldeko 17:30etan Bilbon. •

# Herritarrek proposamenak egiteko atea ireki du Agenda 21 foroak

■ Azaroaren 19an zabor eta hondakinak jorratuko dituen mahai espezifikoa burutuko da

TXINTXARRI

Asteazkenean, hilaren 5ean, Agenda 21 Lokalaren herritarren foroa egin zen Villa Mirentxu etxe-ko ekitaldi aretoan arratsaldeko 19:00etan. Bertan 20 bat herritar bildu ziren Udalak egindako deialdiari esker. Izan ere, foroa herritarren, elkarteen eta administrazioaren arteko komunikatzeko bide bat izateko asmoarekin egin baitzen, bertan elkartu eta guztion ongizate maila hobetzeko asmoarekin.

Asteazkenean 2004 urtetik orain arteko pausak laburtu ziren, ildo estrategikoak errepasatu ziren eta akzioen egoera azkarrean azaldu ziren. Ekainean egin zen foroa aipatu zen eta orduan zegoen jendea foroaren partetzat hartzen dituztela azaldu zuen Ricardo Ortegak edo foroan interesatuak behintzat. Bilera horretan parte hartzeko kontseiluei buruz hitz egin zen eta hauen egoera aipatu zuen Ricardok. "Eskolak udal-kontseiluaren eraketan lanean dihardute eta Hirigintza-antolamenduko kontseilu aholku-emailea dagoeneko martxan da eta taldea alkateak, Ingurumeneko zinegotziak, alderdi politikoek, auzo elkarteek, merkatarik elkarrekin, talde ekologistek eta foroaren izenean Joxe Usabiagak osatzen dute," azaldu zuen Ingurumeneko zinegotziak.

Ostean, ekintza planaren bete mailaren berri eman zen eta proposamenak ere aurkeztu ziren bertan hala nola, foro iraunkor bat sortzearena, gaiak lantzeko taldeak sortzea eta ekintza-planaren berrikusketa egitea.

"Orain arte emandako pausak aintzakotzat hartuko ditugu. Etorkizunean zer egin ikusi behar dugu, landu beharreko araudia egin behar da foroaren estruktura eta jarraipena lortzeko. Pertsona edo elkarteak foroaren parte sentitzea lortu behar dugu eta hauek proposamenak egitea," azaldu zuen foroaren arduradunak.

"Lan-mahai batzuk egingo ditugu sentibilizazio edo garrantzia gehien duten gaiekin: hondakinak eta zaborra, higikortasuna eta garraioak eta aurrekontu parte-hartzaileak," aipatu zuen Ricardok. Gai hauek udal batzarrak aho



Lehenago astean, Ricardo Ortegak Agenda 21aren nondik norakoak azaldu zizkien Villa Mirentxura gerturatu ziren herritarrei.

batez onartutakoak dira eta hauen aukeraketaren zergatia azaldu zuen ostean Agenda 21aren partaideak. Zaborrak eta hondakinaren arloan iraultza egongo dela aurreratu zuen. "Plenoan onartutakoa ekimena da. 2009an atez ateko bilketa selektiboko ekintza pilotua martxan jarriko da. Lehenengo jendeari inkesta egingo zaio onarpena ikusteko, informazio kanpaina, auzokideekin bilerak etab. Ostean, egutegia egingo da material desberdinak zein egunetan biltzen diren jakiteko. Auzo batean egingo da soilik. Baina lehenengo lan-mahaia egin nahi genuen, herritarrek egon daitezkeen arazoak ikusi eta aztertze," onartu zuen Ortegak.

Bigarren mahaiarekin udaleko mugikortasun plana zaharkitua alde batera utzi eta herritarren proposamenak jakin nahi dira, ez soilik egingo diren proiektu urbanistikoaren arabera planak egitea eta adibide gisa higikortasunastean ezarritako autobusa aipatu zuen Ricardok eta ostean aurrekontu parte har-

tzaileen mahaiari buruz zera esan zuen, "edozeren kutxa da. Adibideak eta modeloak aztertu ostean, herritarren proposamenak landuko lirateke lan mahaietan eta urtero udal-letxeko aurrekontuetan herritarren proposamenak egotea gustatuko litzaioguke".

Honela mahaietan nola lan egingo den azaldu zuten Agenda 21eko arduradunak. Batetik egindako jarduerak edo egitekotan daudenak aztertuko lirateke, akzioen bat gehitu edo kendu behar baldin bada mahaietan aztertu litzateke, baita elkarteen edo herritarren proposamenak landu ere. Oraingoz, mahai espezifikoko hauek egingo dira baina besteren bat egiteko proposamenak onartuko direla ere aipatu zen foroan.

Ostean, Ricardok akzio plana eguneratu behar dela onartu zuen., "foro orokorrean lana egin behar da akzio plana eguneratzeko eta diagnostiko berria egin edo dagoena berrikusi. Azken puntu honek lan gehiago dakar".

Era berean, azaroaren 19an egingo den zabor eta hondakinaren lan mahai espezifikorako deialdia luzatu ziren bertan zeudenei.

## Zer da Agenda 21?

Agenda 21 Lokala herritarrek parte hartzeko prozesu dinamikoa da. Eztabaida eta hausnarketaren bidez herriko arazo sozial, ekonomiko eta ingurumenekoak identifikatu eta horiei iraunkorrak diren konponbideak proposatzeko helburuarekin. Asmoa bizi kalitatea hobetzea da, beti ere ingurumena eta beste komunitateak kaltetu gabe.

Horretarako Udalerriko sektore guztien parte hartzea bultzatu nahi da, udala, elkarteak, sektore ekonomikoak eta batez ere herritarrena, horrela erabakiak adostasunez hartzeko. "Jardun lokalki, pentsatu globalki" leloa oinarritzat hartuta garapen iraunkorraren aldeko lana norbanakoarengandik eta gertuko instituzioetatik hasten da eta horri kasu egin diote ekimenarekin hasteko.

## Aurreko lana

Hau aurrera eramateko lehenik, prozesu batzuk gauzatu behar dira ezagutza baten gainean lana egin ahal izateko. Ingurumenaren egoera ezagutu behar da: ingurumenaren eta giza ingurumenaren arteko harremana, baliabide naturalak, jardura ekonomikoek ingurumenean duten inpaktua, ingurune sozial eta ekonomikoa, oinarritako zerbitzuak eta abar, hau da, Udalerriko politiken berri izatea. Bestetik, bizi kalitatea hobetzeko lortu nahi diren helburuak finkatu behar dira eta gero horiek lortzeko ildo estrategikoa eta ekintza-plana edo jardura multzoa.

Herriaren diagnostikoa egiteko 12 esparru desberdin landu dira: Ingurune sozial eta ekonomikoa, ingurune fisikoa, luraren antolamendua eta hirigintza, sistema naturalak, mugikortasuna eta garraioak, sektore giltzarriak (edateko ura, hondakinak, energeiak...), atmosferaren kutsadura, potentzialki kutsatutako lekuak, jardura ekonomikoek ingurumenean duten eragina, ingurumeneko arriskua, herritarren sentibilizazioa eta parte-hartzea eta herriko ingurumenaren kudeaketa eta antolamendua.

Hauek ildo estrategikoko dira eta 27 programa eta 53 akzio dituzte bere baitan. Guztiak 4 urtetan egitea aurrekustena da. Hauen egungo egoera ikusteko <http://www.lasarte-oria.org/eu/html/13/170.shtml> sartu eta fitxategian Iraunkortasunerako ekintza planaren ebaluaketa testuan aurki ditakezue, baita hauek aurrera eramateko dagoen aurrekontua ere.

## Herritarren parte hartzea

Agenda 21 Lokala gauzatu ahal izateko herritarren parte hartzea beharrezkoa da, herriko arazo eta premiak zeintzuk diren jakiteko, egoera hobetzeko egin daitezkeen jarduerak definitzeko eta ekintza horiek aurrera nola eramango diren zehazteko.

Antolatuko diren ekintza eta jardueretan herritarrek eta gainerako aktore sozialak parte hartuko dute helburuak gauzatu ahal izateko. Hau egin ahal izateko herritarren foro finkatu bat sortuko da herritarrek parte hartu dezaten. •

*"Jardun lokalki, pentsatu globalki" leloa oinarritzat hartuta abiatu dute ekimena, garapen iraunkorraren aldeko lana norbanakoarengandik eta gertuko instituzioetatik hasten dela uste dute eta.*

# Zentro Terapeutikoa Kaxkarro eraikinean

■ Arazo psikiatrikoak dituzten haurrak denbora tarte jakin batez egongo dira arreta terapeutikoa jasotzeko O.E.T.-H. Gipuzkoako Lurralde Zentroan

Helena FERRERAS

Lehenago astean inauguratu ziren zerbitzu berriak eskaintzen dituzten Gipuzkoako, Bizkaiako eta Arabako Ospitaleko, Etxeko eta Arreta Terapeutiko-Hezitzaileko Lurralde Zentroak (OET-H). Gipuzkoako Lasarte-Orian dago Kaxkarro eraikinean, denbora tarte luzez itxita egon ondoren eraberritu eta berriro erabiltzeko prest dago. Zentroko zuzendariarekin, Jaione Larrañaga, egon gara zentro honen zerbitzuen berri izateko.

**Zein da zentroaren zeregina?**  
Ikastetxe hau hezkuntzako laguntza zentroa da baina orokorrean osasun arazo desberdinengatik, bai fisiko edo baita psikologikoengatik, ikastetxeetara joan ezin duten haurrei laguntza ematea da helburua.

**Zein laguntza mota eskaintzen duzue?**  
Hiru esparru hartzen ditu beregain zentro honek. Bat ospitaleko esparrua da eta ingresatuta dauden umeei klaseak ematean datza. Ospitalean bi gela daude, bat pediatrian eta bestea psikiatrian.

Beste esparru bat etxe-etxeko zerbitzua da. Etxean dauden ikasleak atenditzen dira baita ere. Normalean gaixotasun fisikoak dituzten haurrak izaten dira baina badaude gaixotasun mentaletan daukatenak ere, fobiaren bat edo eta medikuek esanda ezin dute etxetik atera.

Lantzen dugun azken esparrua terapeutiko-hezigarria da, hauek zentrora etortzen diren ikasleak dira. Arazo psikiatrikoak dituzten ikasleak atenditzen ditugu, batetik terapia intentsibo bat behar dutela ikusi delako eta bestetik eskolan moldatzeko zailtasun handiak dituztelako. Beraien ikastetxetan matrikulatuta daude baina bertan jaso dituzten hainbat laguntza ez dira nahikoak. Denek diagnostiko psikiatrikoak daukate. Goizez egoten dira hemen eta arratsaldeetan beraien ikastetxera bueltatzen dira.

**Zein ume mota dira horiek?**  
Arazo psikiatrikoak daukatenak. Guk eskaintzen dugu-

na jasotzeko ahalmena duten ikasleak izan behar dute. Konbenioaren arabera 6 eta 16 urte bitarteko haurrak dira, EAEko ikastetxe batean matrikulatuta daudenak, patologia mental larria dutenak, zailtasun handia hezkuntzan familian eta gizartean egokitzeko eta atzerapen mentalaren diagnostikorik ez dutenak.

**Nork erabakitzen du haur batek hona etorri behar duen?**

Normalean osakidetzaren menpe egiten dugu lan guk, sendagile batek esaten badu arazo ezberdinengatik ikasle batek ezin duela eskolara joan, eskaera egiten digute eta prozedimendu bat jartzen da martxan. Gai honetan hezkuntza eta osakidetzak dute zer esan, konbenio bat dago eta bi arloetako jendea lanean. Eskaera hezkuntza aldetik egin daiteke, ikastetxeak eta Berritze Guneak atzetik daudela edo osakidetzaren aldetik, baina, erabakiak bateratuta egon behar du, hezkuntza eta osakidetzak ados egon behar dute.

**Zer dira Berritze Guneak?**  
Gune bakoitzak eskola multzo bat hartzen du eta helburu ezberdinen artean bat premia bereziak dituzten ikasleen aholkulariak izatea da. Ikastetxeei ikasle horiek atenditzeko neurriak jartzen laguntzen diete. Guk harreman zuzena dugu beraiekin, haurrei eskolan zerbaite gertatu bazaie horren berri izaten dugu guneen bitartez gero taldean edo bakarka egoera lantzeko. Lan koordinatu bat egiten saiatzen gara profesional desberdinen artean ikaslearen hobe beharrez.

**Zer egiten dute haurrek egunean zehar?**  
Arreta terapeutiko intentsiboa ematen saiatzen gara, arlo kurrikularra ere lantzen dugu ahal den neurrian, baina bereziki sozializazio arloa da gehien lantzen duguna: arauak, harremanak hobetzea eta eskolako tentsio eta erronkei aurre egiten ikastea. Hainbat tailer daude eta lana horien bitartez planteatzen dugu: bat komunikazio tailerra da,



Irudian, zentroko zuzendaria den Jaione Larrañaga.

arlo kurrikularrarekin lotura gehien duena, beste bat eskulanak, plastika teknologia eta horrelako arloak lantzen dituenak, hirugarren bat arlo fisikoa lantzeko egiten dute, soinketa antzerkia edo psikomotrizitatea bakoitzaren egoeraren arabera eta gainera sukalde tailerra ere badago. Horretaz gain jantokia ere espazio terapeutiko bat dela uste dugu, bertan osasun eta harreman aldetik gauza asko landu daitekeelako.

*“Hona etortzea neurri temporal da gero inguru normalizatu batean jardun ahal izateko”*

**Arreta pertsonalizatua da?**  
Etortzen direnean adaptazio fase bat dago lehenik eta ikaslea ondo egokitzen den eta nolakoa den ikusten da gero banakako plan bat egiteko. Helburu batzuk finkatzen dira, bai terapeutikoak eta baita hezkuntza aldekoak ere. Asteaz zehar bakarkako laguntza terapeutikoa jasotzen dute, psikologoaren aldetik, erizainaren aldetik eta gainera psikiatrak ere ikasle bakoitzaren jarraipena egiten du.

Proba ezazu gure laser zerbitzua

MAITE  
ESTETIKAKO ARETOA

- Era guztietako depilazioak
- Aurpegiko tratamenduak
- Gorputzeko tratamenduak
- Makillajeak
- Beste hainbat zerbitzu

Uistin kalea, z/g • Tel.: 943 370845 • LASARTE-ORIA

Kiroletako agenda

**FUTBOLA**

**Larunbata 15**

**10:30ean**, Ostadar-Touring (Infantil Ohorezko maila) Michelinen.  
**13:30ean**, Lasarte-Oria Taldea-Juventudes de America (II. Erregionala) Michelinen.  
**15:30ean**, Ostadar-Añorga (Emakumezkoen Liga) Michelinen.  
**17:15ean**, Ostadar-Amaroz (I. Jubenila) Michelinen.

**12:30ean**, Touring-Ostadar (Infantil txikiak) Fanderia, Oreretan.  
**15:00etan**, Touring-Ostadar (Kadeteen Ohorezko maila) Fanderia, Oreretan.  
**15:30ean**, Amaroz-Ostadar (II. Erregionala) Usabal, Tolosan.

**Igandea 16**

**10:30ean**, Hernani-Ostadar (Emakumezkoen KDT F-I I, txapeldunen fasea) Zubipe, Hernanin.  
**11:30ean**, Lazkao-Lasarte-Oria Taldea (I. Jubenila) Arizti Handin (Lazkao).

**FUTBOL 8**

**Larunbata 15**

**12:00etan**, Lasarte BHI-Zarautz (Infantilak) Michelinen.

**FUTBOL 7**

**Igandea 16**

**09:00etan**, Arriluzea-Niasa-Corpa (III. Maila) Zubietan.

**ARETO-FUTBOLA**

**Larunbata 15**

**16:15ean**, Kanikas Infracoman-Aldaz H.K. (Euskal Liga) Gorostiza kiroldegia, Barakaldon.

**HERRIKO TXAPELKETA**

**10:00etan**, Epel-Danena  
**10:50ean**, Siglo 20-Izkiñ  
**11:40ean**, ISU-Ainhua  
**12:30ean**, Jordi-Ilargi  
**13:20ean**, Buenetxea-Lurra XXI  
**14:10ean**, Izarra-Morrison  
**15:00etan**, Katanga-Oria Txiki  
**15:50ean**, Oria krist.-Biyona

**Igandea 16**

**11:00etan**, ISU Leihoak-Anoetako Gazte Asanblada (Gipuzkoako Liga, I. Maila) Kiroldegian.

**HERRIKO TXAPELKETA**

**09:10ean**, Okela-Mayi  
**10:00etan**, Tragoxka-IOB H.K.  
**10:50ean**, Viña del Mar-Obelisk

**SASKIBALOA**

**Igandea 16**

**12:00etan**, Aloña Mendi-Ainhua (Gizonezko seniorrak) Zubiako kiroldegia, Oñatin.

**PILOTA**

**Larunbata 15**

**12:00etan**, Intza-Gazteleku (Eskuz binaka I. Jubenila) Michelinen.  
**12:00etan**, Intza-Bergara (Eskuz binaka II. Seniorra) Michelinen.  
**16:00etan**, Hernani 2-Intza I (Eskuz binaka infantila 1. urtea) Michelinen.  
**16:00etan**, Urnieta 1-Intza 3 (Eskuz binaka infantila 1. urtea) Michelinen.  
**16:00etan**, Gazteleku-Intza (Eskuz binaka infantila 1. urtea) Michelinen.  
**16:00etan**, Hernani 1-Intza 4 (Eskuz binaka infantila 1. urtea) Michelinen.  
**16:00etan**, Intza 2-Hernani I (Eskuz binaka infantila 2. urtea) Michelinen.

**16:00etan**, Intza-Añorga 3 (eskuz binaka alebinak 2. urtea) Añorgako frontoian.

**18:30ean**, Intza 1-Hernani 4 (Eskuz binaka infantila 2. urtea) Hernani.

**JUDO**

**Larunbata 15**

**Egun osoa**, Beñat Elizaldek Andorrako Lehiaketa Internazionalen parte hartuko du.  
**Egun osoa**, LOKEko infantil eta kadeteak XV: "Villa de Amurrio" lehiaketan parte hartuko dute.

Udal Kiroldegiko Igerilekuan ematen dira, astearte eta ostegunetan, 9:15etik 14:15era. Aquarobic uretako gimnasia egitean datza, musikaz eta ikasleen beharretara egokitutako anketaz lagundua. Edozein adin, genero eta mailatako pertsonak egin dezaketen jarduera da. Aerobicaren bidez errendimendua handitu daiteke besoak, hankak eta enborra erabiltzen diren kirolletan. Prestakuntza-modu ezin hobea da, baita gorputzaren goiko atalen esku-hartzea esklatzen duten jarduera profesionala garatzen dutenentzat ere.

Kiroletako oharrak

**Aerogazte**  
 Astelehen eta asteazkenetan, 17:15ean, aerobikeko eskolak ematen dira 14 urtetik beherako neska-mutilentzat, Udal Kiroldegiko aretoan. Begirale tituluak koordinatu eta animatzen du, koreografia ugariekin, musika eguneratu eta dibertigarri. Erntimoaren eta musika-kadentzien bidez, giza-harremak eta osasuna garatzen eta hobetzen dituzte.

**Aquarobic**  
 Modalitate fisiko berri honen eskolak

“Lasterketa nola joan zen ikusita, ontzat ematen dut 7. postua”



David Martin Kurssaleko zubian barrena, Behobia-Donostia lasterketako azken metroei aurre egiten.

Jon ALTUNA

**David Martinek 12 urte daramatza korrika egiten. Lehen helbururik gabe kirol egiten zuen, ez zuen markarik lortzeko asmorik, baina azkeneko lauzpabost urteetan serioago hasi eta sariak lortzen joan da, azkenekoa Lasarte-Oria Bai! kross herrikoa. Igandean Behobia-Donostia lasterketan parte hartu eta onenen artean ibili zen. 7. postua eskuratu zuen eta ezin izan zuen iaizko marka gainditu. Hala ere, oso pozik agertu zaigu David Martin.**

**Zer moduz Behobia-Donostian?** lazkoa baina gogorragoa izan zen lasterketa. 3. kilometroan bakarrik geratu nintzen, atzetik zetorren taldea motelegi zetorren eta aurrekoek eritimo ona zeramaten, baina ez nintzen ausartzen beraiekin joatea. Julio Rey ikusten nuen eta ez nintzen ausartzen. Eta gero harrrapatu nituen 8. kilometroan, Gaintzurizketan. Baina hau egiteko indar guztiak galdu nituen eta 10. kilometroan indarririk gabe nengoan. Handik aurrera asko sufritu nuen taldean mantentzeko eta haien atzetik joateko.

**Beraz, ezinatu mailako onenik ibili zenuen?**  
 Bai, beraiekin iritsi nintzen 15. kilometrorara arte. Hor taldea desegin zen eta nik jarraitu nien. Baina haizeak pixka bat aurpegiz jotzen zuen eta gogorra zen. Iaz baino gogorragoa benetan.

**Iazkoa baino denbora txarra egin duzu...**  
 Bai, iaz baino minutu bat gehiago egin dut. Hala ere, orokorrean aurtengoak marka kaxkarragoak izan direla uste

du, batez ere beroarengatik eta... haizearengatik ere.

**Gehiago espero zenuen?**  
 Nire asmoa ordu bat 5 minutu baino gutxiago egitea zen, baina lasterketa nola joan zen ikusita, ba beno nahiko ondo. 7. postua ontzat ematen dut, aurretik sartu zen jendea azkarra baita. Izenak ikusten badituzu ez daukate zer ikusirik nirekin.

**Lasterketaren ostean, atsedetik hartu al duzu?**  
 Ba berriro ere egurra emanez nabil, oraintxe bertan etorri naiz 15 kilometro egitetik. Atzo ere joan nintzen. Orain egin behar dudana da atsedean aktiboa, hau da, jarraitzen dut korrika egiten baina eritimoa jaisten.

**Marka hobetzeko aukerarik ikusten al duzu?**  
 Oso zaila da. Nik 35 urte dauzkat eta batez ere motibazioa aurkitzea geroz eta gogorragoa da. Ikusten duzu margen gutxi dagoela edo bat ere ez eta esfortzu bera edo gehiago egin behar duzu aurrera egiteko. Nik orain daukadana mantentzen badut nahikoa.

**Zer moduzko denboraldia egin duzu?**  
 Ona. Luzea izan da. Urtarrilean hasi nintzen eta gutxi gora behera urtero lasterketa berdina egiten ditut eta bost kross irabazi ditut. Ormaiztegi-koa, Andoaingoa, Urrietakoa, Hernanikoa eta Lasartekoa, eta beste hirutan podiumean sartu naiz, beraz oso ondo.

**Etorkizunerako asmoa zein duzu?**  
 Atsedendia behar dut. Denboraldia oso luzea izan da eta atse-

denalditxo bat nahi dut. Asmoak... ba ikusiko dugu. Denbora pasa ahala ikusiko dugu zer egingen dugun eta zer ez.

**Zure izena eta herriarena asko entzun da egun haueetan. Harro al zaude Lasarte-Oriarra izateagatik?**  
 Bai, noski. Gainera, nik esango nizuke txalo handia merezi dutela Ostadarrek eta sortu duen atletismo taldeak. Meritu handia dauka, zeren eta herriaren izena kanpora baitaramagu. Batzuk askotan joaten ginen geure kabuz eta hemendik aurrera ba taldean joan eta herriaren izena zabalduko dugu pixka bat.

**Sailkapena zuzentzen**  
 Arazoak zirela eta, astelehen ezin izan genituen lasarteoriar guztien sailkapenak argitaratu TXINTXARRIn. Hona falta zirenak 17. Gonzalo Sukunza Gorritxo 1:07:26;303. Raul Tejado Muñoz 1:15:59; 476. Raul Gomez Margallo 1:17:56; 496. Iker Juanena Sanchez 1:18:10 (4.juniorra); 889. Tomas Gonzalez Bardón 1:20:51; 1083. Imanol Arteaga Aizbitarte 1:22:05; 1213. Ivan Granado Macazaga 1:22:49; 1223. Mikel Calvo Yarza 1:22:52; 1283. Javi Gil Espiño 1:23:11; 1556. Julen Ollokegi Biurraarena 1:24:22; 1702. Pablo Ucero Arsuaga 1:24:55; 2090. Oscar Gandia Pascual 1:26:26; 2215. Rafa Ruiz Atxiaga 1:26:52; 2503. Luis San Millan Aparicio 1:27:53; 3181. Haitz Corcuera Izagirre 1:29:57; 3460. Iñaki Sodupe Nogues 1:30:49; 3533. Unai Ugartenmendia 1:31:05; 6776. Julen Vega Marin 1:40:07; 7948. Edu Galardi Mendiluze 1:43:32 eta 9146. David Bernabeu Larre 1:47:27. •

Egunero

**Erakusketa**

MONICA CAÑON URSOLA margolariaren margo minimalistak ikusgai. Jalgi kafe-antzikian, egun osoan.



**Erakusketa**

ASIER BASTIDA argazkilararen Amets bat erakitzen erakusketa. Euskal Fondonen laguntzarekin. Kulturetxean, 18:00etatik 21:00etara.

Ostirala, 14

**Diaporama**

"AFRIKARA... LANERA" izeneko diaporama. Ramon Salazar eta Tomas Imaz Maliko herrixka batera ura nola eraman zuten erakutsiko dute. Zabaleta auzoko plazan, 19:30ean, EUSKARAZ.



*Jazz eta swing Jalgiko Jam Sesioan*

ANNA VALENTINA hirukotearen partaidetza bereziarekin izango da hilabete honetako Jalgiko Jam Sesioa. Talde honek jazz-a eta swing-a lantzen du, beste estilo batzuen artean. Taldea berak hasiko da Jam Sesioa bideratzen, parte-hartzaile hauekin: Anna Valentina (ahotsa), Michel Bennet (gitarra) eta Patxi Villanueva (baxua). Hauekin, Josu Etxeberria (ahotsa) eta Jokin Telleria (bateria) izango dira.

GAUR 22:30EAN  
JALGI KAFE-ANTOZKIAN

**Bakarrizketa**

KIKE BIGURIEN bakarrizketa komikoak girotuko du ostirala gaua. Naiban tabernan, 23:30ean, GAZTELANIAZ.

Igandea, 16

**Zinea**

VIAJE AL CENTRO DE LA TIERRA filma ikusgai haurrentzako zinearen barruan. Sarrera 3 euro. Kulturetxean, 17:00etan.

Asteazkena, 19

**Hitzaldia**

NOLA HELTZEN DIEGUN GATAZKAKO EGOEREI, hori izango da Rafael Ramos psikologoak eskainiko duen hitzaldiaren gaia. Kulturetxean, 18:00etan.

**Ipuin-kontalaria**

KORUKO ZURUTUZA ipuin-kontalariaren saioa etxeko txiki-entzatek. Kulturetxeko haurren liburutegian, 18:00etan.



*Irudiekin munduan barrena*

**Diaporamen zikloa Jalgi kafe-antzikian asteazkeno iluntzeko 21:00etan**



**Asteazkena 19**

ANDER AMONDARAINEN, Cabo Verdera eginiko bidaia azalduko du Bidaie-tako Diaporamen zikloaren barruan. EUSKARAZ.

**Asteazkena 26**

IRATI PEREZEK, Nepalera eginiko bidaia kontakuko du Bidaie-tako Diaporamen zikloaren barruan. EUSKARAZ.

**Asteazkena 3**

HIBAI DIEZEK ETA LAGUNEK Txina, Tibet, Kyrgyztan eta Uzbekistanera eginiko bidaia kontakuko dute. EUSKARAZ.

Liburutegiko ordutegia



Astelehenerdik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 21:00etara  
Larunbatetan 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

Esazu irratiko programazioa



**Ostiralero programa!**

FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:45era.

Gurekin ondo pasatuko duzuelakoan, ostiralera arte!

**Oharrak**

**Barrikotea Lasartearra elkartean**

Lasartearra Elkarteko zuzendaritzak bazkide eta lagunei jakinarazi nahi die urtero antolatzen den barrikotea azaroaren 29an, larunbatean izango dela iluntzeko 20:30ean. Bertan parte hartu eta hurbildu nahi duten guztiek elkartetik pasa behar dute izena ematera. Horretarako azken eguna azaroaren 26 izango da.

**Buruntz-Azpi elkarteko afaria**

EHIZA eta arrantzako afaria ospatuko dute Buruntz-Azpi elkartean, bihar, larunbata iluntzeko 20:30ean. Ondoren elkarrekin antolatutako lehiaketetako irabazleei sariak banatuko zaizkie. Afarira joateko izena aurretik eman behar dela jakinarazi dute elkartekoek. Beraz, afarian parte hartzeko interesa duzuenok elkartetik pasa edo 943 370 685

telefono zenbakira deitu behar duzue.

Benedikan ehiza egiteko postuen zozketa azaroaren 16an egingo dute Buruntz-Azpi elkartean bertan. Informazio gehiago behar izanez gero, 600 426 938 telefono zenbakira deitu behar duzue.

**Argazki kamara digital bat galdu zen Krosoko egunean**

Argazki kamara digital bat galdu zen Lasarte-Oria Bai! Kros herrikoien egunean. BENQ DC E720 markako kamara bat da. Aurkitu duenak mesedez deitu dezala 605 760 578 telefono zenbakira. Sarituko da.

**Katxalin Elkarteko loteria salgai**

Bularreko eta Ginekologiako Minbiziagatik Eragindako Gipuzkoako Emakumeen Elkarrekin, Katxalinek, gabonetako loteria bidali du

Lasarte-Oriako Kontsumitzaileen Informaziorako Udala Bulegora. Zenbakia 07.731 da eta txartel bakoitzaren prezioa 3 eurotako da, 0,50 zentimoko dohaina Katxalin elkarteko izango da. Loteria hau erosteko interesa dutenek KIUBek Ganbo kalean duen bulegoan egin dezakete.

**Eguberrietako loteria**

Lasartearra elkarrekin, bazkide eta lagunei jakinarazi nahi die, gabonetako loteria dagoeneko salgai dagoela. Erostekoa asmoa duenak elkartean egin dezake astelehenerdik ostiralera 18:00aurren. Loteria erosteko azken eguna abenduaren 7a izango da, hau barne.

**Maratoiko asteburuan galdutako gauzak**

Euskararen VII. Maratoiko asteburuan zenbait gauza azaldu ziren plazan eta Ttakunen daude, motxila bat,

arropa... Norbaitek zerbait galdu bazuen asteburu horretan pasa dadila Ttakuneko bulegotik (Geltoki kalea 4, 943 371448).

**Bizikletako kaskua**

Bizikletaz ibiltzeko kaskua bat agertu da. Galdu duenak deitu dezala lehen bailehen mesedez, zenbaki honetara 943 366 858.

**Oztabide elkarteko bilera**

Azaroaren 15ean, goizeko 11:00etan Arranbide 10. zenbakian bilera dagoela jakin arazten zaie Arranbide kaleko eta Oztaran plazako bizilagunei.

**Oharrak jartzeko:**

Tel.: 943 366858  
Geltoki kalea 4, behea  
txintxarri@ttakun.com  
txintxarri@txintxarri.info  
www.txintxarri.info

**Dagokionari**

Hauxe duzue zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkaria. Horretarako aukera desberdinak dituzue; telefonoz, 943-366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz txintxari@ttakun.com helbidera bidaliaz. Gure bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

Miren Artetxe Bertsolaria

# ‘Iparraldeko final polit bat nahiko nuke’

JON ALTUNA

23 urte ditu Miren Artetxek, euskal filologia ikasketak aurretik bukatu ditu eta larunbatean arratsaldeko 5etan Donibane Lohitzuneko Jai Alai pilotalekuan izango da Iparraldeko lehendabiziko finalean beste zazpi gazterekin batera. Nafarroako eta Iparraldeko txapelketa batera egiten zenean, 2003an, 18 urterekin kantatu zuen final batean. Orain urduriago dagoela aitortu digu Gasteiz eta Hendaia artean bizi den bertsolaria.

Hendaia kanpo dabil aspaldian, baina larunbat arratsaldean Iparraldeko I. Bertsulari Xapelketako finalean arituko da Miren Artetxe. Hendaian aurkitu dugu aste honetan, baina azken urteotan Gasteizen egon da ikasten eta Bartzelonan ere bai ikasketa amaierako master bat egiten.

**Zer moduz doa Iparraldeko Xapelketa?**

Jende asko joan da saioetara. Horregatik bakarrik ondo. Hiru kanporaketetan batzuek beste berrehun bat lagun egon dira.

**Bertsozale kopurua gora al doa azken urtetan Iparraldean?**

Bai dudarik gabe.

**Iparraldeko bertsolaritza aldatu egin da bertso eskoletatik ateratako gazteak hasi zarenetik. Nola ikusten duzu?**

Garai batean nahiko estankatuta izan zen, Xalbador eta Mattin-en garaiaren ondoren, Alkat hil berria eta beste

batzuek baziren tarteko, baina, ... orduan hasi ginen gu, gaztetxoak, gero eta gazte gehiago. Orduan egindako lana orain ari da ikusten.

**16tik zortzi finalean, erdiak. Erraza izan al da?**

Ehuneko 50eko posibilitatea zegoen. Txanpon bat botatzea bezala izan da.

**Nola ikusi zure burua?**

Nahiko herdoilduta. Azkenaldian kanpoan denbora dextente eman dut. Aspaldi saio serio bat egin gabe, eta herdoildu xamar, baina ondo. Egia esan ez daukat anbizio handirik. Hasieran urduri xamar nintzen, baina gero lasaitu nintzen eta...

**Finalean sartu zara. Zein asmo duzu finalerako?**

Nire presio bakarra finalean sartzea zen. Ez daukat burua batera bertsotarako jarria, beste toki batzutan daukat. Euskal Herrira etorri berria naiz. Orduan saio on bat eginez gero gustura, eta espero dut kaka handirik ere ez egitea.

**Gogotsu al zoaz?**

Bai Iparraldeko finala da, saio berezia izango da, jende asko joango da ikustera, eta nahiko nuke iparraldeko finala saio polit bat izatea. Hori da nire motibazioa.

**Faboritorik ba al duzu?**

Amets esango nuke. Amets eta Sustrai beti egon dira aurrerago eta bietatik bat esatekotan, Amets. Baina gazteak ere indartsu datoz.



denbora badoala aurrera, agian behar baino polikiago, baina ari da aurrera egiten.

**Nafarroako final batean izan zinen 2003an gazteagoa zizela, 18 urterekin. Ze alde dago orduko txapelketa hartatik honetara?**

Urteak pasa direla. Eta, ... nik uste urduriago egongo naizela honetan aurrekoan baino. Garai batean lotsa gutxiago neukala uste dut.

**Escola artekoetan eta gazte txapelketatan askotan aritu zara eta sari batzuk lortu ere bai. Zure bertso ibilbidean ba al duzu oroitzapen berezi edo gozoren bat?**

Behin Joxe Agirrekin joan nintzen Algortara kantatzera eta berak autorik ez zuenek bere bila pasa nintzen Azpeitira, berarekin joan nintzen Algortaraino eta berarekin bazkaldu nuen. Horixe.

**Non eta nola hasi zinen bertsotan?**

9-10 urterekin hasiko nintzen ikastolan, duela 14 bat urte.

**Eta non entrenatzen zara?**

Inon ere ez. Gasteizen bizi naiz bertsotan dakiten lagun batzuekin, baina ez gara aritzen.

**Ikasketak bukatu al dituzu?**

Bai. Euskal Filologia egin dut Gasteizen: ikasgairan bat geratu zitzaidan eta Bartzelonara joan nintzen master bat egitera. Lehenago bukatu behar nuen baina iraila honetan bukatu dut. •

“ Lagunak, kuadrilla, familia osoa... daukat Lasarten. Oso gutxitan joaten naiz, gehiago joan beharko nuke

**17na bertso kantatu beharko dituzue, luze eta gogorra izan daiteke finala, gainera zortzi lagunen artean izanda, ezta?**

Gogorra izango da, guretzat eta entzulearentzat ere bai. Dena den, nik nahiago dut 17 bertsoko saio bat 12koa

baino: diesela naiz, arrankatzea kostatzen zait.

**Bi neska finalean, iparraldean ere bazabiltzate emakumezkoak kantari. Zer hausnarketa egiten duzu horri buruz?**

Ba hausnarketa bakarra da,



Gizon, emakume eta haurrentzako moda

Etixerako eta lanerako arropa



Latxunbe 5 • Tel.: 943 550051 • www.valensl.com • 20120 Hernani